



PUBLIKO IRAKURLEEN SEGMENTAZIOA ETA EZAUGARRIAK

DATUAK ETA GOGOETAK



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



PUBLIKO IRAKURLEEN SEGMENTAZIOA ETA EZAUGARRIAK DATUAK ETA GOGOETAK

1. Sarrera 3
2. Zertaz ari garen irakurketaz ari garenean 4
3. Testuingurua 6
4. Irakurketa ohiturak: publikoen segmentazioa 9
5. Publikoen ezaugarriak 10
 - 5.1. FORMATUARI, LIBURUAK ESKURATZEKO MODUARI ETA LITERATURA GENEROEI LOTUTAKO JOKABIDEA 10
 - 5.2. FAMILIAREN ERAGINA 13
 - 5.3. PROFIL KULTURALA 17
 - 5.4. BIZI ZIKLOA ETA PROFIL DEMOGRAFIKOA 24
 - 5.5. MAILA SOZIOEKONOMIKOA 30
6. Euskarazko irakurketa: hizkuntzarekiko gaitasunari lotutako dinamika 33
7. Sintesia: irakurketaren sustapen informatua 38
8. Azken iruzkina 43

1. SARRERA

Irakurzaletasuna funtsezkoa izan da, da eta izango da herritarren kultura praktiken multzoan. Kultura politiken ardatzetako bat ere bada, kontuan izanik irakurketaren unibertsoaren inguruan daudela liburutegiak, liburuaren sektorea (idazleek, argitaletxeek, banatzaileek eta liburu-dendek osatua), aldizkariak eta prentsa, kritika, azokak eta literatura sariak, etab. Eta horren guztiaren erdian, irakurleak. Horregatik, oso garrantzitsua da xehetasunez aztertzea nolakoak diren publiko irakurleak, estrategia eta politika sendoak zehazteko.

Azterlan honen interesa datza egiten duen gogoetan: irakurketaren praktikari berari buruzkoa eta erakundeek eta ikerketak praktika horretara hurbiltzeko duten moduari buruzkoa. Gainera, interesgarria da ere emaitzen xehetasunengatik eta haien interpretazioaren sakontasunagatik. Emaitza guztiak dagozkie aisialdian borondatez irakurtzen diren liburuei, eta azterketa guztia banandu egin da publiko irakurleen segmentu guztiak barne hartzeko (irakurle ez direnetatik hasi eta irakurle porrokatuenetaraino).

Txostenaren hasieran, aztergaia mugatzen da, apustu eginez termino kontzeptualetan eta estatistikoetan azakeria gaitutuko duen ikuspegi baten alde. Bigarrenik, Euskal Autonomia Erkidegoko irakurzaletasunaren testuingurua zirriborratzen da, datu konparatiboen bidez, ikuspegi historiko eta nazioarteko ikuspegi baten bidez.

Ondoren, publiko irakurleen segmentazio zehatza egiten da, irakurtzeko ohiturak azaltzen dituzten faktoreak arakatu eta interpretatzen dira, eta atal berezi bat eskaintzen zaio azkenik euskarazko irakurketari.

Amaitzeko, sintesi batean, laburbildu egiten dira abiapuntua (irakurketaren gaur egungo egoera EAEn), faktore argitzaileak eta irudika daitezkeen egoerak, lortutako emaitzak konbinatuta segmentazio eta *marketin* kulturalako estrategien eredu kontzeptual batekin.

Azterlana egiteko, batik bat erabili dira Kulturaren Euskal Behatokiak 2018an eginiko *EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkestaren datuak*¹. Gainera, kasu batzuetan, urte bereko *66 Euskal Soziometroaren* datuak erabili dira (2018ko maiatza), Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak eginikoa².

1. Ikus fitxa teknikoa esteka honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_ohiturak_eae_2018/es_def/adjuntos/estadistica-participacion-cultural-cae-2019.pdf

2. Ikus fitxa teknikoa esteka honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_66/es_def/adjuntos/18sv66.pdf



1. ZERTAZ ARI GAREN IRAKURKETAZ ARI GARENEAN

Irakurzaletasunak eztabaida sutsuak sortzen ditu, haren onuren inguruan mundu guztia bat etorri arren. Inork ez du zalantzan jartzen muga kognitiboak zabaltzeko tresna izan daitekeela, edo ulermena, kontzentrazioa, jakintza, pentsamendu kritikoa edo irudimena zabaltzeko duen gaitasuna. Gainera, entretenitu eta laguntzen du. Onura horiek guztiak ikusirik, hezkuntza eta kultura politiken erronkak izan behar du irakurle kopurua handitzea eta jada irakurle diren pertsonen irakurketa ohiturak finkatzea. Horiexek izan ohi dira irakurketa planen helburu nagusiak.

Irakurketaz hitz egitean, hiru ikuspegitatik egin dezakegu: lehenik eta behin, testuak deskodetzeko, ulertzeko eta interpretatzeko teknika gisa har dezakegu; bigarrenik, edozein testu irakurtzeko eta ulertzeko gaitasun edo trebetasun multzo gisa uler dezakegu; azkenik, aisiaz gozatzeko ohitura edo praktika kultural gisa uler dezakegu. Txosten honek hirugarren ikuspegi horretan sakontzen du.

Kontuan izanik irakurzaletasuna bultzatzeko estrategiak oinarritzen direla irakurketa indizeetan, komeni da azaltzea nola definitu eta neurtzen diren irakurketa ohiturak. Izan ere, herritarren irakurketa ohiturei buruzko datuak eztabaidagai bihurtu dira. Izaera estatistikoko arrazoiei (beste testuinguru eta kultura ohitura batzuekin konparatzea ahalbidetzen duten adierazle estandarizatueta oinarrituak) kontrajartzen zaizkie indize horiek agerian uzten dutenari buruzko elkarren aurkako ikuspegiak. Irakurletzat har daiteke azken urtean liburu bakar bat irakurri duen pertsona? Non kokatu behar da gutxieneko atalasea? Esaten denean irakurketa dela praktika kultural zabalduenetako bat, zer datutan oinarritzen da baieztapen hori? Galdera horiek eta beste batzuk irakurketa neurtzeko moduari egiten zaizkion kritiken atzean daude. Jakina denez, datu bat hainbat modutan interpreta daiteke, eta antzeko zerbait gertatzen ari da irakurketaren gaian. Zer posiziotatik egiten den analisia, balorazioa bat edo beste izan daiteke. Edonola ere, mundu guztia bat dator esatean helburua dela gehiago irakurtzea eta hobeto irakurtzea. Helburu hori betetzeko, abian jartzen dira irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmoak: planak, kanpainak edo sektorea (liburutegiak, argitaletxeak, sariak, etab.) babesteko programak.

Aipatu bezala, irakurketari buruzko estatistikak, eztabaidak eta politikak oinarritzen dira azken urtean gutxienez liburu bat irakurri duten pertsonen datuan (ziurrenik nazioartean gehien erabiltzen den adierazleetako bat izateagatik). Adierazle horren arabera, herritar gehienak irakurleak dira (biztanleriaren % 60-75, neurtzeko arabera). Dena dela, alderantzizko irakurketa ere egin daiteke: herritarren % 25-40k ez dute urtean liburu bakar bat ere irakurtzen. Atalase hori zorrotzegia den ala ez baloratzeaz gainera, estatistikak aukera ematen du jakiteko zer ezaugarri dituzten eta zer alde dauden irakurtzen duten pertsonen taldearen eta irakurtzen ez duen taldearen artean.

Informazioaren eta jakintzaren sorkuntzan espezializatutako erakundea den aldetik, Kulturaren Euskal Behatokiak bere ekarpena egin nahi dio eztabaidari. Horretarako, azaltzen du nola neurtzen diren irakurketa ohiturak eta zer metodologia erabiltzen diren (hemen eta beste leku batzuetan), eta zer abantaila eta muga dituzten ohitura edo praktika gisa ulertutako irakurketara eginiko hurbilketa horiek. **“Irakurtzea” zer den eta “ohitura” zer den a priori** aproblematisaioak diruditen galderak izan arren, praktikan ondorio eta emaitza oso desberdinak dituzte, definizioaren arabera.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da zer ñabardura dituen irakurketaren kontzeptuak azterlan mota honetan. Normalean, bi mota nagusi bereizten dira: denbora librean irakurtzea (aisialdian, borondatezkoa eta entretenimendu gisa) eta ikasketengatik edo lanagatik irakurtzea. Praktika kulturalak aztertzen direnean, irakurketa identifikatzen da libreki aukeratutako eta aisialdian eginiko praktika gisa. Testuinguru horretan koka genezake prentsa eta aldizkariaren irakurketa, eta, ikuspegi sektorial batetik eginiko irakurketaren taxonomia baterako problematikoagoa izaten hasi den egoera batean, blogen, *wikien* eta foroen irakurketa, adibide bat aipatzearren.

Bigarrenik, komeni da irakurketa ohituraren ideia kokatzea. Irakurketa ohiturak bi ikuspegitatik neur daitezke:

- Irakurtzeko **maiztasunean** oinarritzen dena. Metodologia hori erabiltzen dute Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak urtero argitaratzen duen → **Hábitos de lectura y compra de libros** txostenak eta Euskal Soziometroak. Editoreen Gremioen Federazioaren azterlanak, kategorizazio horren arabera (egunero edo ia egunero, astean behin edo bitan, hilean behin, hiru hilean behin, ia inoiz edo inoiz ez), bereizten ditu maiz irakurtzen duten irakurleak, noizbehinka irakurtzen dutenak eta irakurtzen ez dutenak.
- Denbora tarte jakin batean **irakurritako liburuen kopuruan** oinarritzen dena. Metodologia hori erabiltzen dute Eurobarometro-Eurostatek, Kultura Ministerioak edo Kulturaren Euskal Behatokiak, eta biztanleriaren kultura ohiturak (ez bakarrik irakurketa) ezagutzeko inkestetan erabiltzen da.


Horiek horrela, nabarmentzekoa da ikerketa honek arreta jartzen duela aisialdian borondatez irakurtzen diren liburuetan eta kategorizazio zehatzago bat egiten duela publiko irakurlea zehazteko orduan (irakurketa ohitura izateko, 3 liburu edo gehiago irakurri behar diren urtean). Ondoren aipatuko diren datu guztiek gutxieneko atalase hori erabiltzen badute ere irakurtzeko ohituraz aritzean, erabilitako segmentazioa askoz xeheagoa da. Ikuspegi horren atzean, uste sendo bat dago: hots, ezinbestekoa dela jakitea nortzuk eta nolakoak diren irakurtzen duten pertsonak irakurzaletasuna sustatzea helburu duten politika sendoak planteatzeko.

2. TESTUINGURUA

Panoramika orokor gisa, komeni da irakurketaren testuingurua aztertzea, haren bilakaera historikoaren eta nazioarteko azterlan konparatibo baten ikuspegitik.

Euskal Autonomia Erkidegoan, EAEko Kultura Ohitura, Praktika eta Kontsumoari buruzko 2008ko inkestaren eta EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuek erakusten dute gora egin duela aisialdiko liburuaren irakurketak 2008. eta 2018. urteen artean. Azken hilabetearen irakurritako liburuak erreferentziatzat hartuz, 4,5 puntu igo da ehunekoa: % 45,7tik % 50,3ra.

1. grafikoa. Praktika kulturalen bilakaera 2008. eta 2018. urteen artean EAEan (%)




Iturria: Egileek egin, EAEko Kultura Ohitura, Praktika eta Kontsumoari buruzko 2008ko inkestaren eta EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuetatik abiatuta.

Kontuan izanik gutxienez liburu bat irakurri behar izan dela azken hilabetean, ehuneko handiak (% 53,4) erakusten du hartzeko praktika kultural zabaldu eta bizienetako bat dela, eta soilik gainditzeko dutela egunkariak astean behin irakurtzeak eta musika egunero entzuteak. Irakurketari dagokionez, aintzat hartu behar da bilakaera negatiboa izan dela arreta jartzen badugu egunkarietan eta aldizkarietan.

Aisialdiko liburuen irakurketaren igoera txikia kokatu behar da hartzeko jardura kulturalen gorakada orokorraren testuinguruan. Igoera handienak, oso esanguratsuak, zuzeneko arteetan izan dira. Aldiz, jaitsiera bakarrak, esan den bezala, egunkarietan eta aldizkarietan asteroko irakurketan izan dira, bi-biek ehuneko altuetan jarraitzen badute ere.

Euskarazko kultura jardueretan parte hartzeari dagokionez, bilakaera positiboa da EAEn kasu guztietan, nahiz eta abiapuntu eta maila oso desberdinekin. Igoera txikiak izan dira euskarazko liburuen irakurketan (1,2 aldiz handiagoa) eta euskal musika entzuteko ohituran (1,3 aldiz handiagoa). Bertsolaritzan, bikoiztu egin da parte hartzea, eta antzerkian boskoiztu, zineman bezala, nahiz eta kasu honetan ehunekoak oso-oso txikiak diren eta ohiko parte hartzeaz hitz egiten den.


2. grafikoa. Euskarazko praktika kulturalen bilakaera 2008. eta 2018. urteen artean EAEn (%)



Iturria: Egileek egin. EAEko Kultura Ohitura, Praktika eta Kontsumoari buruzko 2008ko inkestaren eta EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuetatik abiatuta.

Nazioarteko datuekin konparatuz gero, azken urtean gutxienez liburu bat irakurri duten pertsonen ehunekoak 6 puntutan gainditzeko du Europako batez bestekoa, 13 puntutan Espainiako Estatuko batez bestekoa eta 1 puntutan Frantziako Estatuko batez bestekoa (kontuan izan behar da Europako datuak 2013koak direla).

3. grafikoa. Lau eremuetan azken urtean gutxienez liburu bat irakurri duten pertsonen kopuruen konparazioa (%)




Iturria: Egileek egin, 2013ko Euskobarometroaren eta EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuetatik abiatuta.

Garrantzitsua da nabarmentzea Espainiako Estatuan irakurzaletasuna handitu egin dela pixkanaka, Kultura Ministerioaren Kultura Ohitura eta Praktikei buruzko Inkestaren datuen arabera, 2006-2007tik 2018-2019ra, bi adierazleri dagokienez: azken urtean ikasketekin edo lanarekin zerikusia ez duen liburu bat gutxienez irakurri duten pertsonak, eta azken hilabetean ezaugarri horietako liburu bat gutxienez irakurri duten pertsonak. Aldiz, European behera egin dute kopuru horiek, GSR fundazioaren datuen arabera³.

3. "Jóvenes y lectura. Estudio cualitativo y propuestas" (2022), Fundación Germán Sánchez Ruipérez.

4. grafikoa. Irakurketa mailen bilakaera Espainiako Estatuan 2007. eta 2019. urteen artean (%)



Iturria: Egileek egina, Espainiako Kultura Ministerioaren Kultura Ohitura eta Praktikei buruzko Inkestaren datuetatik abiatuta.

Hala, kontuan harturik datu konparatiboak eta historikoak, esan daiteke **irakurketa maila nahiko egokia dela**, eta **dinamika benetan positiboa bat dagoela**, hoberantz doan bilakaera geldo batekin. EAEko irakurketa maila hobe, Espainiako Estatuko datuei dagokienez, agerian gelditzen da ere Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak argitaratutako azken txostenean → **Hábitos de Lectura y Compra de Libros en España (2021)**.

Azkenik, interesgarria izan daiteke ere galdetzea **zer eragin izan duen pandemiak liburuen irakurketan**. Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak argitaratutako → **Hábitos de Lectura y Compra de Libros en España (2021)** txosteneko datuek adierazten dute **irakurketa indizeek bilakaera geldo eta positiboarekin jarraitu dutela konfinamenduaren ondoren**. → **2020ko edizioan** ikus daitekeenez, irakurketa indizeek gorantz jarraitu zuten 2020ko konfinamenduan, eta atzera egin bazuten ere

deskonfinamendua hasi zenean, urte horretako udan 2019ko mailen gainetik zeuden. Hau da, irakurzaletasunak handitzen eta sendotzen jarraitu du pixkanaka.

Hala eta guztiz ere, ikuspegia zabaldu eta beste herrialde batzuetako parte-hartze kultural orokorrari eta irakurketa joerei erreparatzen badiegu, argi eta garbi ikus daiteke **zailtasunak** daudela, zerikusia dutenak herritarren interes berriekin eta transformazio digitalen garapenarekin.


Publikoen **segmentazio** xeheagoak, haien **ezaugarriak** zehazteak eta irakurketa ohitura bakoitzari lotutako **mekanismoen identifikazioak** lagungarri izan behar dute **fenomenoa hobeto ulertu** eta **estrategia publiko egokiak planteatzeko**.

4. IRAKURKETA OHITURAK: PUBLIKOEN SEGMENTAZIOA

Kontuan izanik aztergaia (aisian nork bere borondatez liburuak irakurtzea), oro har **irakurtzeko ohitura duten herritarrak % 34,2 dira EAEn**, hiru multzotan banatuta: ohiko irakurleak (% 9,9, 6-8 liburu urtean), irakurtzeko ohitura handia dutenak (% 9,4, 9-12 liburu urtean) eta irakurle porrokatuak (% 14,9, 12 liburu baino gehiago urtean). Gainera, **herritarren % 21,2k irakurtzeko ohitura latentea** dute (noizbehinkako irakurleak, 3-5 liburu urtean). Beraz, guztira, **herritarren % 55,4k irakurtzeko gutxieneko ohitura** dute, noizbehinkako irakurleetatik hasi eta irakurle porrokatuenetaraino.

Aldiz, irakurtzen ez duten herritarrak (liburu bakar bat ere ez irakurtzea erreferentziatzen hartutako urtean) % 25,1 dira, nahiz eta **% 44,6ra irits daitekeen irakurtzeko ohiturarik ez duen biztanleria**.

5. grafikoa. Publiko irakurleak ohituren arabera, aintzat harturik azken urtean irakurritako liburu kopurua. (%)



Iturria: Egileek egina, EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuetatik abiatuta.

Maila honetan xehatutako ikuspegitik aztertzeko arrazoia ez da inola ere balio-iritziak ematea irakurzaletasunaren egoerari buruz, herritarrak irakurletzat hartzeko atalasea handituz edo txikiagotuz. Helburua da ikuspegi bat eskaintzea, gai izango dena, lehenik eta behin, **errealitate askotariko bat agerian uzteko** eta, bigarrenik, errealitate heterogeneo horretara egokitutako **gogoeta eta egitasmo espezifikoak** iradokitzeak. Ondorioz, segmentazio honi esker, helburu espezifikoagoak, *ad hoc*, ezar daitezke kolektibo bakoitzarentzat.

Gainera, aukera ematen du aldagai demografikoetan oinarritutako segmentazioak gainditzeko, hala nola adina edo sexua (edo ikasketa maila), soilik adierazgarriak direnak beste aldagai batzuen eragina erakusten duten neurrian (eta hori ez da beti gertatzen edo ez da beti ondo ulertzen). Alde horretatik, erraz jarriko gara ados, datu sakonagoetan eta xehetasunetan sartu beharrik gabe oraingoz, esaten badugu gazteek, pertsona helduek, adindunek, gizonak, emakumeak edo titulu akademikoa jakin bat duten pertsonak ez dutela talde homogeneorik osatzen irakurtzeko ohiturari dagokionez.


5. PUBLIKOEN EZAUGARRIAK

5.1. FORMATUARI, LIBURUAK ESKURATZEKO MODUARI ETA LITERATURA GENEROEI LOTUTAKO JOKABIDEA


Irakurtzeko ohitura azaltzen duten elementuak aztertzeari ekin aurretik, interesgarria eta beharrezkoa da publiko segmentuen ezaugarri gehigarri batzuei buruzko informazioa aipatzea.

Joera orokor oso argiak dauden arren, aldeak ere badaude segmentu irakurleen artean.

6. grafikoa. Segmentu bakoitzak gustuko duen formatua (%)



7. grafikoa. Segmentu bakoitzak azken liburua eskuratzeko modua (%)



Iturria: Egileek egina, 66 Euskal Soziometroaren datuetatik abitatua.

Hasteko, nabarmentzekoa da paperaren eta formatu digitalaren konbinazioa areagotu egiten dela irakurtzeko ohitura handitu ahala: gutxien irakurtzen dutenek joera handiago dute papera aukeratzeko; aldiz, gehien irakurtzen duten pertsonak bi formatuak konbinatzearen alde daude Hortaz, ondorio gisa atera daiteke **papera dela aukera nagusia eta formatu digitalak baliabide bat eskaintzen duela irakurketa areagotu eta biziagotzeko**, interes argi bat dagoen kasuetan.


Bigarrenik, liburuak eskuratzeko moduari dagokionez, kasu guztietan erostea bada ere modu nagusia, **inguruko pertsonen eragin handia dute ere irakurtzeko ohiturarik ez duten publiko irakurleen artean**. Kasu horietan, **lagunak eta senideak izan daitezke, preskriptore ez ezik, baita irakurzaletasunaren akuilatzaile ere**. Irakurtzeko ohitura handiagoa duten pertsonen liburuak hitz egiteko beharra izan ohi dute, musika edo telesailekin gertatzen den bezala, eta horrek eragin positiboa du inguruko pertsonengan.

Halaber, Internetetik doan deskargatzeko aukera zabalduago dago irakurzaletasun handiagoa duten pertsonen artean, baita liburutegietako maileguak ere. Berrito ere ikus daiteke gehien irakurtzen duten pertsonak direla liburuak eskuratzeko baliabideei etekin handiagoa ateratzen dietenak (Internet, liburutegiak). Datu horiek ikusirik, arrazoi handiagoz hitz egin daiteke irakurle porrokatuez.

Hirugarrenik, 8. grafikoan ikus daitekeenez, joera nagusia da eleberri historikoak eta eleberriak oro har (zehaztu gabe) irakurtzea, eta, ondoren, askoz neurri txikiagoan, eleberri beltza eta abenturazkoa. Hala eta guztiz ere, nolabaiteko desberdintasunak daude publiko irakurleen segmentuen artean:

- **Irakurri bai baina irakurtzeko ohiturarik ez duten pertsonak** batez bestekoaren oso azpitik daude gehien aipatzen diren 3 aukerei dagokienez (eleberri historikoa, eleberria oro har eta eleberri beltza), eta batez bestekoaren gainetik biografiak, dibulgazio/informazio liburuak, bidaia liburuak eta sukalde liburuak irakurtzen. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da “Ez daki/Ez du erantzun” dela kategoria nagusia. Horrek adieraz dezake **ezjakintasuna** edo **gustu argirik ez edukitzea**, txikituz doana irakurtzeko ohitura areagotu ahala. Oro har, hobespenak banatuago daude (alde txikiagoa gehien irakurtzen den generoaren eta gutxien irakurtzen denaren artean), eredu orokorrari jarraitzen bazaio ere.
- **Irakurle porrokatuen** artean, batez bestekoaren gainetik daude, alde handiz gainera, eleberri historikoak, saiakerak eta zientzia fikzioa.
- Ohiko irakurleei dagokienez, aldagai honek interes txikiagoa izan dezake, efektu aleatorioengatik eta batez bestekotik hurbilago dauden hobespenengatik.

8. grafikoa. Segmentu bakoitzak hobetsitako literatura generoak (pertsona bakoitzeko 2 genero hautatzeko aukera). (%)



Iturria: Egileek egina, 66 Euskal Soziometroaren datuetatik abitatua.

5.2. FAMILIAREN ERAGINA


Aztertutako aldagaiak		
Irakurzaletasunarekin lotutako jarduerak haurtzaroan	Beste kultura jarduera batzuk haurtzaroan	Gurasoen ikasketa maila
_Irakurtzeko maiztasuna _Liburutegira joateko maiztasuna	_Parte hartze maila hartzeko jardueretan haurtzaroan (kontzertuetara joatea, antzerkia, museoak...) _Parte hartze maila jarduera aktiboetan haurtzaroan (musika-tresna bat jotzea, marraztea, antzerkia egitea...).	_Aitaren ikasketa maila _Amaren ikasketa maila · Apala (derrigorrezkoa edo hortik beherakoa) · Ertaina (derrigorrezkoaren ondokoa eta erdi mailakoa) · Handia (goi mailakoa eta

Irakurtzeko ohiturei buruzko ikerketek bereziki nabarmentzen dute haurtzaroan irakurtzeak duen garrantzia, eta denek diote etapa horretan irakurtzeko ohiturak eta balioak eskuratzea dela helduaroan irakurketa mailen aurrekaririk argiena. Hori adierazten du Scholastic eta YouGov enpresek bi urtean behin argitaratzen duten → **Kids and family reading report** txostenak, datu oso esanguratsuak ematen dituenak familiak irakurzaletasunean duen eragin ikaragarriaz (gako ugari ematen ditu haurtzaroko irakurketaren eta haren sustapenaren inguruan). Hori dela-eta, haurrak izan ohi dira irakurzaletasuna sustatzeko kanpainen ardatza, etorkizuneko publiko gisa, eta berebiziko garrantzia ematen zaie, familiari ez ezik, baita eskolari eta liburutegiei ere.

Familiaren eraginari lotutako faktoreak **motibazio intrintsekoak** izeneko multzoan biltzen dira ikerketetan. Motibazio intrintsekoek zerikusia dute oro har **balioak eta jarrerak barneratzearekin**, eta balio eta jarrera horiek dira helduaroan irakurtzera bereziki bultzatzen dutenak, familiatik jasotako eraginaren arabera.

Gainera, kontuan izan behar da haurtzaroko irakurketa lotuta dagoela **maila kognitiboan eskuratutako gaitasunekin**, eta gaitasun horiek etorkizunean erakargarri egin dezaketela irakurketa, neurria handigoan edo txikiagoan, **jardueraz gozatzeko pertsona bakoitzaren espektatibaren** arabera. Edozein jardueraz gozatzeko, beharrezkoa da (baina ez nahikoa) ondo garatuta edukitzea trebetasun jakin batzuk, mota honetako edozein traba ezabatuz irakurketarako.


9. grafikoa. Publiko irakurleak haurtzaroan irakurtzeko maiztasunaren arabera (%)



Iturria: Egileek egina, EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuetatik abiatuta.


Haurtzaroan maiz irakurri duten 10 lagunetatik 2k bakarrik ez dute irakurtzeko ohiturarik helduaroan, eta 10etik 5ek dute ohitura (ohikoa, handia edo oso handia, azken kategoria hori izanik bereziki nabarmena). Aldiz, haurtzaroan oso gutxi edo batere irakurri ez duten 10 pertsonetatik 7k irakurtzeko ohiturarik ez duten pertsona izaten jarraitzen dute helduaroan. Beraz, **eragin handia** duen faktore bat da, **irakurtzeko ohiturarik ez izateari** dagokionez bereziki.

10. grafikoa. Publiko irakurleak haurtzaroan liburutegira joateko maiztasunaren arabera (%)




Alde horretatik, haurtzaroan liburutegira joateko maiztasunak ere antzeko eragina du, zertxobait apalagoa bada ere. Edonola ere, lotura argia dago, eta agerian gelditzen da **liburutegiek, eskolarekin batera, familiaz harago izan dezaketen eginkizun adierazgarria.**

11. grafikoa. Publiko irakurleak haurtzaroko hartzeko praktika kulturalen maiztasunaren arabera (irakurtzea eta liburutegira joatea izan ezik). (%)



12. grafikoa. Publiko irakurleak haurtzaroko praktika kultural aktiboen maiztasunaren arabera. (%)




Iturria: Egileek egina, EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuetatik abiatuta.

Illo horretan, nabarmentzekoa da **haurtzaroan irakurtzeak zerikusia duela kultura jardueraren aldeko joera duen ingurune orokor batekin**. Beste hitz batzuekin esateko: irakurtzen duten pertsonak beste kultura jarduera batzuetan ere parte hartzen dute, eta alderantziz.

Aurrerago sakonago aztertuko den bezala, gauza bera gertatzen da helduaroan.

Zehazki, aurreko grafikoetan ikus daitekeenez, **zenbat eta gehiago parte hartu kultura jardueretan haurtzaroan** (hartzeko jarduerak edo jarduera aktiboak), **orduan eta handiagoa da irakurtzeko ohitura helduaroan**. Adibidez, haurrak zirenean hartzeko jardueretan inoiz edo ia inoiz parte hartzen ez zuten 10 pertsonetatik 6 irakurtzeko ohiturarik ez duten pertsonak dira helduaroan. Ia gauza bera gertatzen da jarduera aktiboetan inoiz edo ia inoiz parte hartzen ez zuten pertsonekin: 10etik 5 irakurtzeko ohiturarik gabeko pertsonak dira helduaroan.


13. grafikoa. Publiko irakurleak aitaren ikasketa mailaren arabera (%)



Iturria: Egileek egina, EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuetatik abiatuta.

Azkenik, aitaren edo amaren ikasketa mailak garrantzi askoz txikiagoa du, eta irakurtzen ez duten pertsonen kopuruan eragiten du. Aitzitik, gurasoen ikasketa mailak apenas duen eraginik irakurle porrokatuen kopuruan. Horrek agerian uzten du **zer garrantzi duen haurtzaroan irakurketari lotutako sozializazioak, gurasoen ikasketa mailari lotuta zertan egon ez**

14. grafikoa. Publiko irakurleak amaren ikasketa mailaren arabera (%)



duena. Beste modu batean esateko: ikasketa maila, faktore esplikatibo gisa, garrantzitsua da beste aldagai batzuen eragina islatzen duen neurrian, eta, berez, ahalmen esplikatibo esanguratsuagoa duen kasuetan ere, beharrezkoa da azpian dauden mekanismoak ulertzea.

5.3. PROFIL KULTURALA

Aztertutako aldagaiak			
Motibazio intrintsekoak	Beste hartzeko jarduera kultural batzuk	Jarduera kultural aktiboak	Praktika digitalak
_Irakurzaletasuna _Kulturari ematen zaion balio pertsonal edo garrantzia _Hartzeko jarduera kulturaletarako motibazioak. _Irakurtzeko motibazioak (oro har, liburuak izan ala ez).	_Liburutegietara, ikuskizunetara, zinemara, kontzertuetara, museoetara eta arte galerietara joatea. _Harpidetza ikus-entzunezko plataforman. _Telebista ikusteko maiztasuna. _Bideojokoekin jolasteko maiztasuna.	_Elkarteetan parte hartzea. _Parte hartze maila jarduera artistiko amateurretan.	_Parte hartze maila alor digitaleko hartzeko jarduera kulturaletan. _Parte hartze maila alor digitaleko jarduera kultural aktiboetan.

Publiko irakurleen profil kulturala garrantzitsua da publiko horiek ikuspegi osoago eta integratuago batetik ulertzeko. Lehenik eta behin, aurretik esan den moduan, faktore gako bat dago, kulturarako joera orokorra elikatzen duena: jarduera egiteko motibazio intrintsekoa.

Irakurzaletasuna, jakina, irakurketa praktikaren prediktore handi bat da. Dena dela, aldagai hori aztertzeke interesa ez datza irakurketa praktikaren aldagai esplikatibo gisa duen erabileran, honako honetan baizik: **zaletasunaren (alde aurreko joera edo nahi gisa) eta praktika errealearen (nahi hori betetzea) arteko alderaketa.**


Horri esker identifika ditzakegu **etorkizunean publiko irakurleen segmentuen artean irakurtzeko ohitura indartzeko aukerak** (15. grafikoa):

- _ irakurtzen ez duten 10 pertsonetatik 2k irakurzaletasun nahiko handia edo handia dute
- _ irakurtzeko ohiturarik ez duten 10 pertsonetatik 5ek irakurzaletasun nahiko handia edo handia dute

- _ noizbehinka irakurtzen duten 10 pertsonetatik 7k irakurzaletasun nahiko handia edo handia dute.

Honako hau da **irakurtzeko ohitura indartzearekiko aurkakotasun txikiagoa izan dezakeen publiko irakurleen segmentu bakoitzaren zatia**: joera argi bat dago, eta kasu hauetan gehiago ez irakurtzeko arrazoiak ez dira intrintsekoak, kanpokoak baizik (aurrerago aipatuko ditugu).


15. grafikoa. Publiko irakurleen segmentuen irakurzaletasuna (%)



Iturria: Egileek egina, 66 Euskal Soziometroaren datuetatik abiatuta.

Argiago uler dadin eta "irakurzaletasuna/irakurketa praktika" binomioaren sinpletasunean ez erortzeko, balio pertsonalaren aldagaia edo oro har kulturari ematen zaion garrantzia baliagarria zaigu hobeto defendatzeko motibazio intrintsekoak garrantzi handiko zioa direlako ideia. Emaitzak bat datoz ohiko azterlanek adierazitakoarekin: kulturarako joera duten balioak eta jarrerak edukitzeak ondorio praktiko bat du, egiaztagarria, praktika kultural bakoitza gauzatzeko mailari dagokiona (kasu honetan, irakurketa).

16. grafikoa. Publiko irakurleak kulturari ematen zaion balio pertsonalaren arabera (%)




Iturria: Egileek egina, EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuetatik abiatuta.

Funtsean, faktore horiek guztiek erakusten dute **distantzia psikologiko** handiago edo txikiago bat badagoen edo ez **jarduera hauekiko**. Publikoaren segmentazioan oinarritutako marketen kulturaleko estrategiek erakusten dutenez, distantzia psikologiko edo sinboliko hori faktore garrantzitsuenetako bat da "publiko ez diren" pertsonen artean, norberaren eguneroko bizitzatik at dagoen praktika jakin batean "lekuz kanpo" sentitzea eragiten dutenak (praktika horren ingurunea, jendeak, kodeak...), baita "honek ez du nirekin zerikusirik" ideia automugatzaila ere.

Horrela, **irakurtzeko ohitura orokorki txertatzen da bizitza estilo eta nortasun propio batean** (norberari eta norberak kulturarekin duen erlazioari buruzko sineste multzoa), eskema harmoniko bat eratuz balio abstraktuen eta praktika espezifikoaren artean: kasu zehatz honetan, kulturak balio pertsonalen eskalan duen posizioaren eta irakurketaren praktika espezifikoaren artean.


Gainera, aldaketa handia dago hartzeko praktika kulturalerako motibazio mota nagusien artean (17. eta 18. grafikoak).

17. grafikoa. Publiko irakurleak hartzeko jardura kulturalerako motibazio nagusien arabera. (%)



Iturria: Egileek egina, EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuetatik abiatuta.

18. grafikoa. Irakurtzeko motibazioak liburu irakurleen profilaren arabera. (%)



Iturria: Egileek egina, 66 Euskal Soziometroaren datuetatik abiatuta.


Irakurtzeko ohitura handiagoa da arrazoi sinbolikoak (nork bere burua aberastea edo garatzea) **edo kulturalak** (ikastea, jakintza berriak eskuratzea) **aipatzen dituzten pertsonen artean**. Arrazoi sozialak (sozializatzea, lagunekin egotea) eta emozionalak (zerbait desberdina egitea, deskonektatzea, gauza berriak sentitzea) aipatzen dituzten pertsonekin alderatuta, irakurtzen ez duen taldea 10-11 puntu txikiagoa da (17. grafikoa, ezkerrean).

Hala, irakurtzeko ohitura handiagoa duten pertsonen, kulturari oro har garrantzi handiagoa emateaz gainera, **premia mota espezifiko bati erantzun** nahi diote. Hau da, kontu kuantitatibo bat ez ezik, kontu kualitatibo bat ere bada. Lotura hori aurreikus daitekeen zerbait da, kontuan izanik motibazio sinbolikoek eta kulturalak lotura estuago dutela irakurketarekin⁴, beste praktika batzuk (kulturalak eta ez-kulturalak) egokiagoak direlako behar sozialei eta emozionalei erantzuteko.


Ikuspegi hori indartu egiten da irakurketarekiko motibazio zehatzak aztertuz gero (liburuak izan ala ez). Gehien aipatzen diren bi arrazoiak dira "gozatzea eta entretenitzea" eta "informatuta egotea". Zehazki liburuak irakurtzen dituzten publikoei dagokienez, liburu gehien irakurtzen dituztenen artean pisu handiagoa dute gozatzeak eta nork bere burua kulturalki aberasteak (18. grafikoa, eskuinean). Aldiz, liburu gutxien irakurtzen dituztenentzat informatuta egotea da arrazoi nagusia. Hau da, **irakurtzeko ohitura handiagoek zerikusia dute motibazio espresibo batekin (zaletasunagatik irakurtzea, gustura sentitzeko), eta gutxien irakurtzen duten pertsonen irakurketaren ikuspegi instrumentalagoa dute (irakurtzea etekin bat lortzeko eta ez nork bere burua gogobetetzeko).**

Bizitza estiloetan oinarritutako ikuspegi hau sendotzen dute, ez bakarrik kulturari oro har ematen zaion balioaren eta irakurketa praktikaren arteko korrelazioak, **baita irakurtzeko ohitura handiagoaren eta beste praktikak kultural batzuekiko ohitura handiagoen arteko korrelazioek** ere.


19. grafikoa. Liburutegia: liburutegira joatea irakurketa mailen arabera (%)



20. grafikoa. Ikuskizunak: ikuskizunetara joatea irakurketa mailen arabera (%)




21. grafikoa. Kontzertuak: kontzertuetara joatea irakurketa mailen arabera (%)




Iturria: Egileek egin, EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuetatik abiatuta.

4. Hain zuzen, Kulturaren Euskal Behatokiak eginiko "Parte-hartze kulturala Euskal Herrian: moduak, arrazoiak eta inpaktuak" (2019) azterlanak agerian uzten du motibazio sinbolikoak eta kulturalak positiboki erlazionatuta daudela hartzeko praktika kulturalarekin; motibazio sozialak, aldiz, parte-hartze aktiboarekin.


22. grafikoa. Liburutegia: liburutegira joatea irakurketa mailen arabera (%)



23. grafikoa. Ikuskizunak: ikuskizunetara joatea irakurketa mailen arabera (%)



24. grafikoa. Kontzertuak: kontzertuetara joatea irakurketa mailen arabera (%)




Iturria: Egileek egina, EAEko Parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestaren datuetatik abiatuta.

Beste praktika kultural batzuekiko lotura positibo hau zabaldu egin daiteke ere jarduera artistiko amateurretara (antzerki talde batean aritzea, musika-tresna bat jotzea, marraztea, margotzea...), elkartegintzara eta hartzeko praktika digitaletara (entzutea, deskargatzea, irakurtzea, erostea...), baina ez aktiboetara (norberaren edo beste batzuen material artistikoa argitaratzea edo partekatzea, artistekin harremanetan jartzea, kultura foroetan parte hartzea...).


Praktiken arteko elkarrekiko indartzea oro har hautematen da dedikazio ertain-handiko kategorietaraino, ez ordea dedikazio handiko kategorietan. Hori ulergarria da, praktika guztietarako behar den denboran pentsatzen badugu. Edonola ere, nabarmentzekoa da **irakurketak ia jarduera eta praktika kultural guztiekin duen harreman positiboa (neurri handiagoan edo txikiagoan)**. Emaita horiek sendotu egiten dute **bizitza estilo batzuek oro har jarduera kulturaletan** (bereziki, aisialdian liburuak irakurtzea) **parte hartzeko duten joeraren** ideia.




25. grafikoa. Praktika amateurak: dedikazioa irakurketa mailen arabera (%)




26. grafikoa. elkartean parte hartzea irakurketa mailen arabera (%)



27. grafikoa. Hartzeko praktika digitalak: praktika horietan aritzea irakurketa mailen arabera (%)



28. grafikoa. Praktika digital aktiboak: praktika horietan aritzea irakurketa mailen arabera (%)



Korrelazioek kausalitateak identifikatzeko aukerarik ematen ez badute ere, elementu teoriko batzuei esker irakurketa har dezakegu parte hartze kulturalerako sarbidedat, baita parte hartze hori indartzeko jardueratzat ere. Alde horretatik, **irakurketa har dezakegu jarduera kultural nagusizat**.


Amaitzeko, aipatzekoa da **telebistak, bideojokoek eta ikus-entzunezko plataformek ez dutela eragin adierazgarririk** irakurketan, edo behintzat hori ez da ikusten aldagai horiek *Euskal Herriko Parte-hartze kulturalari buruzko inkestaren datuekin neurtzean*.

Telebista ikusteko maiztasunak, aste edo hilabeteko egunetan neurtuta, apenas duen eraginik irakurketa mailan. Horrela neurtuta, esan daiteke oso ohikoa den praktika bat dela eta zeharkakotasun handiko aldagai bat dela. Herritarren % 6k bakarrik diote telebista ikustea "batere ohikoa ez"


dela (astean egun bat baino gutxiago); aldiz, "oso ohikoa" da % 88,1entzat (astean 3-4 egun baino gehiago edo egunero). Aurkakoa gertatzen da bideojokoekin jolasteko maiztasunarekin: soilik herritarren % 4,4k diote "oso ohikoa" dela; aldiz, % 84,7k diote "ez dela batere ohikoa". Ikus-entzunezko plataforma batera harpidetuta egotearen edo ez egotearen artean, aldea ere oso txikia da.

Kasu horietan, azterlan fokalizatuagoak beharko lirateke irakurketan duten eragina ebaluatzeko. Nolanahi ere, esan behar da, **teorian behintzat, irakurketarekin lehian dauden jarduerak direla, etxean ere egiten direlako**. Hala ere, haien eraginak espezifikotzat har daitezke adin tarteen arabera (telebistaren eragina pertsona adindunengan, bideojokoak gazteengan eta ikus-entzunezko plataformak gazte eta helduengan).


29. grafikoa. Telebista ikustea: maiztasuna irakurketa mailen arabera (%)



30. grafikoa. Bideojokoekin jolastea: maiztasuna irakurketa mailen arabera (%)



31. grafikoa. Ikus-entzunezko plataforma batera sarbide kontua irakurketa mailen arabera (%)



5.4. BIZI ZIKLOA ETA PROFIL DEMOGRAFIKOA

Aztertutako aldagaiak					
Adina	Aisialdia	Bikotea eta seme-alabak	Generoa	Habitata	Jatorria eta hizkuntza
_Adin taldeak	_Asteko denbora librearen kantitatearen autobalorazioa (asteen zehar eta asteburua konbinatuta)	_Bakarrik bizi da bai/ez _Seme-alabak bai/ez _Aurreko bien konbinazioa aztertzeko: bikotea eta seme-alabak, bikotea seme-alabarik gabe, ezkongabea seme-alabarik gabe.	_Emakumea ala gizona	_Hiriaren tamaina	_Eskualdea _Euskalduna

Adin soziologiko bat edo bizi zikloak daude, bizitzako etapa eta trantsizio prozesuek ezaugarri sozial desberdinak izaten dituzten heinean. Oro har, haurtzarora, gaztarora, helduarora eta zahartzarora bereiz daitezke; dena den, kasu bakoitzean azpibanaketak ere egin behar izaten dira egoera jakin batzuetan, hala nola lehen haurtzarora, bigarren haurtzarora, nerabezarora, heldu gazteak, bikote bizitza eta familia ugalketa, habi hutsak, erretiroa eta laugarren adina.


Ikuspegi soziologiko honek lagungarri izan behar du adinak sakontasun handiagoz interpretatzeko, kontuan izanik **bizitzako etapa bakoitzarekin eta trantsizioekin lotzen diren baldintza sozialak**. Hartara, denbora librearen kantitateak eta adinak elkarri eragiten diote une bakoitzeko erantzukizunak aintzat hartuta. Egia da **denbora librearen edo adinak ez dutela eragin handirik bakoitza bere kabuz hartuz gero**, baina **aldagai horien eragina handiagoa da elkarren arteko interakzioak bizi zikloaren une bakoitza kontuan izanik aztertzen badira**. Bereziki nabarmena da hori helduaroan: denbora libre gutxiago seme-alabak izatean eta haurrak txikiak direnean (35 urte inguruan), eta denbora libre gehiago haurrak bizimodu autonomoagoa izaten hasten direnean (45 urtetik aurrera).

Gainera, kontuan izan behar da denbora librearen aldakuntza handiagoa izaten dela asteburuan, asteen zehar erantzukizun gehiago daudelako, eta asteburuak aisialdira bideratzen diren denbora soziala izaten dira, oro har. Horregatik, desberdintasunik izatekotan, asteburuan izango lirateke, hein handiagoan, egun horietan denbora gehiago izaten delako libre eta jarduera bat ala beste egingo den erabakitzeke ere aukera handiagoak daudelako.

Ilido beretik, denbora librearen alderdi hori jarrera psikologikoarekin lotuta, kontuan hartu behar da kultura jarduera batzuekin (kasu honetan, irakurketarekin) egon daitekeen distantzia sinbolikoa aisialdiko beste jardunbide batzuetarako joera dagoen testuinguru batean gertatzen dela. Zentzu horretan, **oso litekeena da "interesik gabeko publikoa" baino gehiago, "beste interes batzuk dituen publikoa" izatea**. Testuinguru digitalean gordinago adierazi den bezala, beste batzuen aurretik, pertsonen arreta eta denbora erakartzea lortu behar da, gero eta saturatuagoa (proposamen gehiago) eta lehiakorragoa (marketinera bideratutako baliabide gehiago) den testuinguru batean. Gogoeta hori garrantzitsuagoa da gazteen kasuan.

Hurrengo grafikoan, adinaren eta irakurtzeko ohituren arteko lotura orokorra agertzen da. Ikus daitekeenez, **45-64 urteko helduek (habi hutsaren eta erretiro aurreko etapak) irakurtzeko ohitura handiagoa dute**, eta ikusten da, halaber, **laugarren adinarekin arazo berriak agertzen direla osasunari lotuta** eta, zehazki, irakurketaren kasuan, ikusmen arazoak. Era berean, **gazteenen artean ohiturak galtzen ari direla** ikusten da.

32. grafikoa. Irakurketa mailak adin taldeen arabera (%)




Iturria: Egileek egina Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

→ **Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak Espainiako Liburuen Irakurketa eta Erosketa Ohiturak 2020. urterako** txostena egin zuen, konfinamendua ere aintzat hartuta, eta txosten horretan ikusten denez, **konfinamendu egoeran zeuden irakurketa indizeen igoerak 35 urtetik beherakoetan gertatu ziren batez ere, eta nabarmen gainera**. Horrek esan nahi du publikoaren segmentu horietan lehia dagoela beste interes batzuekin.


Murritzapen orokortuen egoera batean (aisialdirako aukera gutxiago), irakurtzea lehentasuna izan zen haientzat eta, kasu batzuetan sendotu egin bada ere, normaltasun handiagoko egoera batera itzultzeak irakurketa mailetan atzerakada ekarri du kasu horietako askotan.

Seme-alabak dituzten bikoteen artean, alde handiak daude 44 urte baino lehenagoko adinen (hazkuntzako etapa izan daiteke) **eta ondorengoen artean** (habia hutsaren etapa izan daiteke). Denbora librearen kantitateak ere eragin nabarmena du 45 urtetik 55 urtera bitarte.


33. grafikoa. Irakurketa mailak seme-alabak dituzten bikoteen kasuan, hainbat etapatan (hazkuntzako etapa versus habia hutsaren etapa) (%)



34. grafikoa. Irakurketa mailak aisialdiaren arabera 35-44 urteko adin taldean (%)



35. grafikoa. Irakurketa mailak 35-44 adin tartean, seme-alabak izatearen arabera eta bakarrik edo bikotekidearekin bizitzearen arabera (%)




Iturria: Egileek egina Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta


Ideia horren indargarri bat honako hau da: 35-44 urtekoen kasuan, libre duten denboraren kantitateak eragin handiagoa du, zentzuzkoa denez, seme-alabak izatearekin lotuta dagoen aldetik, 35-44 urteko taldearen eta irakurketaren arteko lotura adierazitako denbora librearen kantitatearen arabera azaltzen duen grafikoan ikus daitekeenez. Azkenik, 35-44 urteko pertsonak seme-alabak dituzten ala ez dituzten arabera, eta bakarrik bizi diren ala ez arabera alderatuz gero, are nabarmenagoa da **adin horietan bizi zikloak eragina duela, ugalketa faktorea dela eta.**

Aitzitik, 24 urtetik beherako gazteen kasuan, ia ez dago loturarik (15-19 urtekoak), edo apur bat alderantzizkoa ere izan daiteke (20-24 urtekoak). Alegia, aisialdiaren kantitateak ez du eraginik irakurtzeko ohituretan, edo ohitura horren kalterako ere izan daiteke. Aisialdiaren eraginaren arteko kontrajartze horrek (positiboa adin batzuetan eta ia ezdeusa edo baita negatiboa ere beste batzuetan) ideia bat indartzen du; hain zuzen ere, behatu gabeko aldagaiak bigarren mailan jarduten ari direlako ideia, eta aldagai horiek lotura dute, logikoa denez, **aisialdia betetzeko irakurketaz bestelako interesak izatearekin eta ikasketei dagozkien betebeharrak espezifikoki izatearekin.**

36. grafikoa. Irakurketa mailak aisialdiaren arabera 15-19 urteko adin taldean (%)



37. grafikoa. Irakurketa mailak aisialdiaren arabera 20-24 urteko adin taldean (%)




Iturria: Egileek egin Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

*Aisialdiaren aldagaiaren muturrak bateratzea erabaki dugu ("Ezer ez" eta "Gutxi samar", alde batetik, eta "Asmo samar" eta "Askok" bestetik), mutur horietan oso kasu gutxi izateak (10 pertsona baino gutxiago) dakartzan distortsioak saihesteko.

Kontuan hartu behar da, gazteenei dagokienez, *Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkestako* datuak mugatuak direla: 15 urtetik gorakoak soilik agertzen dira. Gainera, ez da kolektibo horretan fokatutako lagina. 15 urte dira, hain zuzen ere, Espainiako Editoreen Gremioen Federazioak egindako → **"Espainiako Liburuaren Irakurketa eta Erosketa Ohiturak 2020. urterako Barometroa"** laneko datuen arabera, ohiko irakurlearen proportzioak nabarmen behera egiten duen adina; izan ere, aurreko urteetan azaltzen dira ohitura hedatuenak eta bizienak (gehiago eta maizago irakurtzen da); beraz, irakurketa orokortuen dagoen bizitzako etapa haurtzarora dela identifikatzen laguntzen dute. Izan ere, → **"Kids and family reading report"** ikerketa errepikariaren arabera, 9 urterekin gertatzen da irakurtzeko ohituren lehen aldaketa (jaitsiera) garrantzitsua. 9 urtetik 15 urtera arteko aldi horretan, aisialdia betetzeko lehian sartzen diren jarduerak ugaritu egiten dira, eta norberaren interesak garatzen hasten dira.

Nerabezaroa, irakurketarako ere, aldaketa handiko aldia da. GSR fundazioak → **"Jóvenes y lectura. Estudio cualitativo y propuestas"** azterlan espezifiko egin du berriki eta, horren arabera, irakurketaren ezaugarriak dagokienez, nerabeek identifikatzen duten ezaugarri nagusietako bat isolamendua da, jardura indibidual eta bakartia den aldetik. Txostenaren egileek hauteman dutenez, pertzepzio hori bereziki problematikoa da adin horietan, non interakzio soziala eta, zehazki, berdinen taldearekiko interakzioa hain garrantzitsua den.

Gráfico 38. Irakurketa mailak, generoaren arabera


Iturria: Egileek egin Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik

Gai horiekin guztiekin batera, irakurketari buruzko azterlan guztietan alde handienak eragiten dituen beste aldagaietako bat **gizon edo emakume izatea da, emakumeek irakurtzen baitituzte libururik gehien denbora librean.**

Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkestako datuetan ikus daitekeenez, alde nagusia irakurtzen ez dutenen kategorian (erreferentziako urtean libururik irakurri ez duten pertsonak) gertatzen da. Alde handieneko hurrengo kategoria superirakurleena da (erreferentziako urtean 12 liburu baino gehiago irakurri dituzten pertsonak).


Alde horiek 15-19 urteko taldean agertzen dira jada, eta areagotu egiten dira 33-44 urteko taldeetan ere (horietan gehiago handitzen da irakurtzen ez dutenen taldea gizonen kasuan); aldiz, aldeak behera egiten du eta desagertu ere egiten da erretiroan eta laugarren adinean. Aldeek beren horretan diraute 30-44 urteko taldeei soilik erreparatuz gero, seme-alabak izan ala ez izan aintzat hartuta ere, horiek baitira seme-alabak hazteko adin nagusiak.

Genero arrakala horren azpian dauden mekanismoak eztabaidagai dira oraindik ere, eta horien artean faktore biologikoak aipa daitezke (fenomeno hori unibertsala da), baita kulturalak ere (arrakalaren tamaina aldatu egiten da hainbat testuingurutan). Kontu hori alde batera utzita, garrantzitsua da egiaztatzea eta ikustea **familiarekiko betebeharrak handieneko aldietan ere ohiturak jarraitzen duela**. Bestela esateko, motibazio intrintsekoak eta balio eta jarrerak barneratzea (haurtzaroko garapenari oso lotuta dauden prozesuak dira, hor ere agertzen baita aldea gizonen eta emakumeen irakurketa portaeren artean) oso garrantzitsuak dira: **interesa, alde aurreko jarrera eta borondatea kanpoko mota guztietako arrazoiei gailentzeko gai dira.**

Beste plano batean, ohiko behaketa izaten da **hiri ingurunean edo landa ingurunean bizitzearen arteko aldeari** erreparatzea, eta hiri ingurunean irakurketa indize handiagoak izateko aukera handiagoa dago⁵. *Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko inkestaren 2018ko datuek ebidentzia partziala* baino ez dute erakusten, publikoen segmentazioa handiagoa den aldetik: hiriburuetan eta 50.000 biztanletik gorako hirietan, irakurtzen ez duten pertsonen kopurua 5 puntutik 8 puntura bitarte txikiagoa da.

5. Esate baterako, *Fernandez-Blanco eta beste* egileek azterlana egin zuten Kultura ohitura eta praktikei buruzko 2010-2011ko inkestatik populazio espainiarraren datuak hartuta eta, horren arabera, 100.000 biztanletik gorako hirietan bizitzea eragin positiboa duen faktorea da


39. grafikoa. Irakurketa mailak bizileku den herriaren tamainaren arabera (%)



Iturria: Egileek egina Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta


Pertsonen jatorri geografikoa desberdintasun sozialak eragiten dituen faktorea izan ohi da gure gizarteetan eta, irakurketaren kasuan, ikus daiteke **irakurtzeko ohitura txikiagoa dela Europatik kanpo jaiotakoen artean**. Kasu horretan, ohiturarik ez duten irakurleen eta noizbehinkako irakurleen proportzioan gertatzen dira aldeak, irakurtzen ez dutenen proportzioari eutsi egiten zaio aztergai diren kolektiboetan. Kontuan hartuta irakurtzen ez dutenen proportzioa ez dela desberdina, zentzuzkoa da pentsatzea, nolabaiteko joera badagoen arren, arrazoi sozialak daudela (bazterketa soziala, kontzeptuaren zentzu zabalenean: bazterketa ekonomikoa, politikoa, kulturala, etab.) eta/edo hizkuntza eta alfabetatze arazoak EAEko argitaletxeen ekoizpenean hedatuen dauden hizkuntzetan, etab.).

40. grafikoa. Irakurketa mailak sorterriaren arabera (%)



Hizkuntzari dagokionez, EAEko datuen arabera, **euskaraz zein gaztelaniaz erraz hitz egiten dutela diotenek irakurtzeko ohitura handiagoa dute**. Proportzioetan dauden alde nagusiak, batez ere, inoiz irakurtzen ez dutela dioten pertsonen kopurua txikiagoarekin eta irakurtzeko ohitura erregularra duten pertsonen kopuru handiagoarekin dute zerikusia. Euskaraz errazago hitz egiten dutela diotenei dagokienez, irakurtzeko ohiturak zertxobait txikiagoak dira gaztelania bakarrik edo beste hizkuntza bat hitz egiten dutela diotenekin alderatuta. Euskarazko liburuen eskaintzari buruzko galdera egitea interesgarria bada ere, kontuan hartu behar da euskararen erabilera hedatuago dagoela adin talde gazteenetan, hau da, hain zuzen ere, aisialdian liburuak irakurtzearekin lotura gutxien duten kolektiboetan. → **Euskarazko irakurketari** buruzko atal bat dator aurrerago, eta hor xehetasun handiagoz aztertuko dugu dimentsio hori.

41. grafikoa. Irakurketa mailak hitz egiten diren hizkuntzen arabera (%)



Iturria: Egileek egina Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

5.5. MAILA SOZIOEKONOMIKOA

Aztertutako aldagaiak		
Ikasketa maila	Diru-sarrerak	Lanbide mota
_Apala (derrigorrezkoa edo hortik beherakoa) _Ertaina (derrigorrezkoaren ondokoa eta erdi mailakoa) _Handia (goi mailakoa eta unibertsitatea)	_Diru-sarreraren 7 maila. "Sarrerarik gabe" maila kanpoan utzi dugu egoera heterogeneoak bil ditzakeelako (ikasleak, etxeko langileak, mendekotasuna)	_Kulturarekin eta sormenarekin lotutako lanbidea _Gainerako lanbideak


Ikasketak eta diru-sarrerak funtsezko bi aldagai izan ohi dira talde sozialak bereizteko garaian. Irakurketari dagokionez, ikasketa mailak lotura lineal argia duela ikus daiteke: **zenbat eta ikasketa maila handiagoa, orduan eta irakurle gehiago** –noizbehinkakoak, ohikoak, sutsuak eta superirakurleak–; eta gutxiago dira irakurtzeko ohiturarik ez dutenak eta irakurtzen ez dutenak.

Diru-sarreraren mailari dagokionez, lotura ez da hain argia. 1.000–1.250 eurotik aurrera hasten da eragina sumatzen, ahulki bada ere. 750–1.000 euro jasotzen dituztenekin alderatuta, 2.000 eurotik gorako sarrerak dituztenen taldean irakurtzeko ohitura duten pertsonak % 18 gehiago dira, hau da, guztira % 62,9. Diru-sarrera handieneko talde horrek du superirakurleen eta irakurle sutsuen ehuneko handiena, eta irakurtzen ez dutenen eta irakurtzeko ohiturarik ez dutenen ehuneko txikiena.


Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da ikasketa maila eta **diru-sarreraren maila estu-estu lotzen direla. Izan ere, diru-sarreraren eta irakurtzeko ohituraren arteko erlazioa ikasketa mailaren arabera aztertuz gero, erlazioa desagertu egiten da.** Beraz, pentsa daiteke diru-sarreraren maila ez dela aldagai garrantzitsua irakurtzeko ohiturak ulertzeko.

Bigarrenik, ikasketa mailak eragina izatearen azpian zein mekanismo egon daitekeen hausnartu behar da. Gainerako emaitzekin bat etorritz, zentzuzkoa da esatea **ikasketa maila motibazio intrintsekoen eraginaren eta irakurtzeko aldez aurreko jarrera handiagoaren adierazgarri izan daitekeela**, egunerokotzat eta norberaren balioekin eta jarrerekin bat datorren zerbait dela pentsatzen den aldetik.

42. grafikoa. Irakurketa mailak ikasketa mailaren arabera (%)



43. grafikoa. Irakurketa mailak diru-sarreraren mailaren arabera (%)



Iturria: Egileek egina Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

Zehazki, irakurketaren kasuan, gainera, funtsezko faktore bat dago: **ikasketa maila handiagoa izatea irakurtzeko gaitasun handiagoa izatearen froga da**. Hau da, alderdi sinbolikotik haratago (distantzia psikologikoa gutxitzea ikasketa mailak gora egin ahala), badago **beste alderdi paralelo bat, kognitiboa**, gaitasunei dagokiena.

Ezin dugu ahaztu irakurtzeko gaitasuna oinarritzko elementua dela hezkuntza sisteman aurrera egiteko eta arrakasta izateko. Bestela esateko: irakurtzeko zailtasun handienak dituzten ikasleak desabantailan daude hezkuntza sisteman. Beraz, zentzuzkoa da pentsatzea ikasketa maila ez dela irakurtzeko ohiturarik ez izatea eragiten duen faktorea, baizik eta irakurtzeko gaitasunik ezak hezkuntza maila txikia dakarrela. Ohitura, zentzu horretan, gaitasunarekin loturik dago. Gaitasuna, beraz, oinarritzko faktorea da. Hasierako ataletan adierazi genuenez, irakurketaz gozatzeko beharrezkoa da

gai zarela sentitzea eta trebetasun nahikoa izatea, irakurtzea ez dadin izan ahalegin kognitibo onargaitza, aurreikusitako edo lortutako gogobetetasuna baino handiagoa.

Mekanismo hori ez litzateke bakarra izango irakurketaren kasuan. Beste kultura jardun batzuetarako, ohiko moduan aipatzen den faktore bat hizkuntza artistikoak eta haien kodeak "deszifratzeko" gaitasuna izaten da; hau da, gaitasun artistikoa.


Beraz, interesgarria da nabarmentzea **alderdi sinbolikoak (jarduerarekiko distantzia psikologikoa) eta kognitiboak (jardueraz gozatzeko gaitasunak) lotura estua izan dezaketela irakurle ez diren askoren kasuan**, eta, horren ondorioz, bi faktore horiek irakurketarik gabeko portaera erreproduzitzen dute eta elkarren indargarri dira.

Zentzu horretan, **bizitza estiloaren** arloko faktoreak dira, familiaren eraginari eta kultura profilari buruzko hasierako ataletan azaldu dugunez. Bizitza estilo horien jatorria kultura kapitala (oinordetzan jasotakoa zein berez osatutakoa) eta hezkuntza kapitala dira, eta kapital horiek, diru-sarrerekin baino gehiago, klase sozialen ikuspegitik begiratuta, pertsonen lanbide motarekin eta produkzioko harreman sareetan duten posizioarekin izan dezakete zerikusia: eskuz egiteko lana edo ez, lan kualifikatua edo ez, laneko hierarkian duten posizioa, ekoizpeneko bitartekoekin duten erlazioa, lanbidearen prestigioa...

Faktore asko alde batera uzten badira ere, lanbideen eta bizitza estiloen arteko balizko lotura hori agertzen duen kasu berezi bat da kulturaren eta sormenaren sektorean lan egiten dutela diotenen (lanbide artistikoak, kultura kudeaketa, publizitatea, diseinua, arkitektura, bideo jokoaren sorkuntza...) eta gainerakoen arteko irakurketa indizeak alderatzea. Talde txiki horretan (landunak direla diotenen % 9,5), irakurtzeko ohiturarik ez izatea fenomeno marjinala da, eta taldearen erdia baino gehiago dira ohiko irakurleak, irakurle sutsuak edo superirakurleak.

Dena kontuan hartuta, eta nahiz eta datuek ez duten aukerarik ematen klase sozialei eta bizitza estiloei buruzko hipotesia testatzeko, ikuspegi horren azpian hainbat faktore eta mekanismo kokatzeko aztarnak bai ematen dizkigute.

44. grafikoa. Irakurketa mailak, lanbidearen arabera




Iturria: Egileek egina Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

6. EUSKARAZKO IRAKURKETA: HIZKUNTZAREKIKO GAITASUNARI LOTUTAKO DINAMIKA

Euskarazko irakurketa berriaz aztertu beharra dago. Aisialdian liburuak euskaraz irakurtzeari dagokionez, → **festuingurua** atalean azaldu denez, gogorarazi behar da azken hamar urteetan izan duen bilakaera positibotzat jo dela, nahiz eta hazkunde txikiagoa izan duen aztertutako beste kultura praktika batzuen aldean.

45. grafikoa. Euskaraz irakurtzeko maiztasuna, irakurketa maila orokorraren arabera (%)




Iturria: Egileek egina Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

Euskaraz irakurtzeko maiztasunak nolabaiteko lotura agertzen du orokorrean irakurtzeko maiztasunarekin, baina lotura hori ez da argia, ezta lineala ere. Euskaraz irakurtzen ez dutenen ehunekoak behera egiten du irakurtzeko ohitura handiagoa dagoen heinean, baina maiz samar irakurtzen dutenen kategorietan ez da, askotan, joera lineal hori ikusten. Beraz, beste faktore batzuk ere hartu behar dira aintzat.

Euskaraz irakurtzeak argi adierazten du **irakurketaz gozatzeko beharrezkoa den irakurketa gaitasuna** badagoela, nahiz eta kasu honetan gaitasunak hizkuntza jakitearekin zerikusia izan, eta ez hainbeste beste irakurketa trebetasun batzuekin. Euskaraz ondo irakurtzen dakitenen artean bakarrik da esanguratsua euskarazko irakurketa.

46. grafikoa. Euskaraz irakurtzeko maiztasuna euskaraz irakurtzeko gaitasun mailaren arabera (%)




Iturria: Egileek egin Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

Hori dela eta, hizkuntzaren ezagutzaren testuinguruan kokatu behar da. Zehazki, nabarmentzekoa da % 36,1 euskal hiztuntzat har daitezkeela (ondo edo nahiko ondo hitz egiten dute euskaraz), eta % 38,6k diotela euskaraz ondo edo nahiko ondo irakurtzen dutela. Zehazki, euskarazko irakurketa

mailaren gurutzatuz gero, ikus daiteke garrantzitsuena ondo irakurtzea dela, eta ez nahiko ondo; kasu horretan, **biztanleriaren % 29,5ek ondo irakurtzen du euskaraz.**

47. grafikoa. Euskaraz ulertu, hitz egin, irakurri edo idazteko maila (%)




Iturria: Egileek egina Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

Euskaraz irakurtzeko gaitasuna eta euskaraz irakurtzeko maiztasuna adinaren arabera aztertuz gero, ikusten da **gazteak direla aldaketa bektore nagusia**; izan ere, kolektibo horretan irakurketa ohitura galdu egiten baita haurtzaroari dagokionez.


Euskaraz ongi irakurtzen dutenen batezbestekoa % 29,5 bada ere, ehuneko hori % 72,6ra igotzen da 15-19 urteko pertsonen kasuan, eta 44 urtetik aurrera soilik hasten da batezbestekoa baino txikiagoa izaten.

Adin talde bakoitzean euskara etengabe hedatzen ari da, eta hori irakurketan ere sumatzen ari da, euskarazko irakurketa mailak handiagoak izanik.

48. grafikoa. Euskaraz irakurtzeko maiztasuna adinaren arabera (%)



49. grafikoa. Euskaraz irakurtzeko gaitasun ona edo nahiko ona adinaren arabera (%)




Iturria: Egileek egina Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

*Aisialdiaren aldagaiaren muturrak bateratzea erabaki dugu ("Ezer ez" eta "Gutxi samar", alde batetik, eta "Asmo samar" eta "Asko" bestetik), mutur horietan oso kasu gutxi izateak (10 pertsona baino gutxiago) dakartzan distorsioak saihesteko.

Gainera, interesgarria da azpimarratzea **euskararekiko eta ingurune hurbilarekiko (lagunak, familia) konpromisoa aipatzen direla bi arrazoi nagusitzat**, nahiz eta ez dituzten aipatu euskaraz irakurtzeko arrazoitzat, baizik eta oro har euskarazko kultura jarduerak egiteko arrazoitzat. Gazteen artean, ingurune soziala funtsezko alderdia da, segur aski bizitzako une

horretan tipikoak diren sozializazio premiekin bat etorrira. Era berean, gazteen artean pisu handiagoa du hizkuntzarekiko erosotasunak, eta helduen artean, berriz, gehiago baloratzen dira eskaintzaren kuantitatea eta kalitatea.

50. grafikoa. Kultura jarduera euskaraz egiteko arrazoiak adinaren arabera (%)



Iturria: Egileek egin a Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

*Ehunekoak batuta % 100 baino gehiago ateratzen da, erantzun bat baino gehiago eman behar zelako eta bi arrazoi nagusiak aipatzen zirelako. Ehunekoak zera adierazten dute, arrazoi horiek zenbat aldiz aukeratu diren adin talde bakoitzean.

Euskarazko irakurketan, beraz, lehen aipatutako faktoreak eta mekanismoak euskaraz irakurtzeko trebetasunekin lotzen dira; izan ere, trebetasun horiek

adinari atxikitako baldintzatzaileak dituzte, adin taldearen arabera, kanpoko alderdi instituzionalekin (**hezkuntza sistema**), batik bat, lotuta.

7. SINTESIA: IRAKURKETAREN SUSTAPEN INFORMATUA

Herritarrak irakurketarekiko duten loturaren arabera egoki segmentatuz gero, helburu eta estrategiak portaeren aniztasunari ahalik eta gehien erreparatuta kalibra daitezke.

Egindako azterlanari esker, aintzat hartu beharreko abiapuntua eta faktore nagusiak xehetasun maila adierazgarri batekin ezar daitezke, bai eta segmentu bakoitzaren garapen potentzialaren gainean pentsatzeko elementuak ere (etorkizunerako aukera egingarriak).


Abiapuntua

Zifra esanguratsuei dagokienez, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Urtebetean gutxienez liburu bat irakurri duten (aisialdian edo norberak erabakita) herritarrak % 74,9 dira. % 25,1ek ez dute liburu bat bera ere irakurri.
- Hala eta guztiz ere, liburu 1 edo 2 irakurri dituzten herritarrak % 19,6 dira; beraz, irakurtzeko ohitura txikiena ere ez duten herritarrak % 44,6 dira.
- Urte batean 3 liburu edo gehiago irakurri dituzte herritarren % 55,4k. Horietatik % 21,2k oso tarteka irakurtzeko ohitura dute, latentea.
- Ohikotasunez edo gehiago irakurtzen duten (urtean 6 liburu edo gehiago) herritarrak % 34,2 dira.
- Irakurle porrokatuak herritarren % 14,9 dira.


Euskadiko testuinguruan, irakurketa mailak Europako batezbestekoaren gainetik daude, betiere azken urtean gutxienez liburu bat irakurri izanaren arabera neurtuta. Bai Euskadiko testuinguruan, bai Espainiako Estatuko testuinguruan, azken hamarkadetan bilakaera positiboa izan da, geldoa izan den arren.

51. grafikoa. EAEko biztanleria irakurtzeko ohituren arabera (talde nagusiak) (%)



Iturria: Egileek egina Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

52. grafikoa. EAEko biztanleria irakurtzeko ohituren arabera (talde zehatzak) (%)



Iturria: Egileek egina Euskal Herriko parte-hartze kulturalari buruzko 2018ko inkestako datuetatik abiatuta

Azalpen faktoreak

Herriarren ezaugarriak kontuan izanik, irakurtzeko ohitura horiek hein batean ulertzeko lagungarri izango diren azalpen faktoreak eskematizatu daitezke. Faktoreak elkarren artean lotuta dauden arren, maila kontzeptual eta analitikoan interesgarria da honako hauek bereiztea:

– Arrazoi subjektibo edo psikologikoak

Arlo horretan, potentziala duten aldagaiak biltzen dituen kontzeptua “motibazio intrintsekoak” da, kulturarekiko eta irakurketarekiko alde aurreko jarrera, balio eta portaerekin lotutako motibazioak, alegia. Arrazoi horiek faktore bereizgarri nagusia dira eta, begien bistakoa dirudien arren, batzuetan, ahaztu egiten da borondatea eta interesa funtsezkoak direla.

Motibazio intrintseko hori sortzea ez da, inolaz ere, lan erraza, ezta mekanikoa ere; beraz, planteamendu inozoak alde batera utzi behar dira. Adibide gisa, esan dezagun familian, eskolan edo liburutegietan haurren sozializazio prozesuak urteak irauten dituela

eta, aukera gehiago edo gutxiago izan ditzaketen arren, ez dagoela determinismorik.

Familieta kulturaren erreproduzitzeko dinamika izaten denez, interesgarria da bi alderdi landu daitezkeela pentsatzea: alde batetik, familien barruan lan egitea eta, bestetik, beste espazio sozial batzuetan lan egitea, hala nola eskoletan eta liburutegietan, baina ez horietan bakarrik.

15 urtetik gorako biztanleriari soilik dagozkion datuak erabili diren arren, gogoan izan behar da haurrak oso garrantzitsuak direla, prestakuntza jasotzen ari diren publikoa diren aldetik, eta helduaroan irakurketarako joera bultzatuko duten alde aurreko jarrera psikologiko asko eratzten direla haurtzaroko etapa horretan. Helduei dagokienez, irakurketarekiko distantzia psikologikoa edo sinbolikoa laburtzea da erronka nagusietako bat, batez ere irakurtzen ez dutenei begira pentsatzen badugu. Gainerako kasuetan (irakurtzeko ohitura dutenak), irakurtzeko maiztasunarekin zerikusi zuzenagoa duten beste faktore batzuk egongo dira.

Generoarekin lotutako arazoak hemen sartzeari zentzuzkoa da; izan ere, arrazoi edozein dela ere, azken batean, emakumeek eta gizonek motibazio desberdinak adierazten dituzte, eta emakumeak dira ohitura zabalena dutenak.

– Faktore kognitiboak

Irakurtzeko gaitasuna funtsezko beste faktore bat da eta, gainera, haurtzaroak asko baldintzatzen du. Izan ere, haurtzaroa garrantzitsua da irakurketari buruzko balio eta jarrera positiboak garatzeko ez ezik, baita ikasteko eta trebetasunak garatzeko ere. Alfabetatze unibertsaleko testuinguru batean, ulertu behar da aldea ez dakarrela trebetasuna izateak ala ez izateak, baizik eta irakurtzeko gaitasunaren trebakuntza sakonagoa izateak.

Irakurtzeko gaitasunik eza, gainera, distantzia psikologikoarekin eta irakurtzeko alde aurreko jarrerarik ezarekin lotuta dago, jardueraz gozatzeko itxaropenik ez izatea eragozpen izaten baita. Hori dela eta, pertsona horiek egokiago moldatzen diren beste jarduera batzuen bidez bilatu ohi dute gogobetetasuna.

Maila kognitiboan, erretiroko eta laugarren adineko etapetan ikusmen arazoak eta bestelako osasun arazoak garrantzia hartzen ari direla nabarmendu behar da; horrenbestez, egoera bereziak sortzen dira kolektibo horientzako.

– Bizi zikloaren baldintzatzaileak

Adinak berariazko garrantzia du, baina soilik bizi etapa bakoitzarekin lotutako baldintza sozialak adierazten dituen heinean. Laburbilduz, honako alderdi hauek nabarmendu daitezke:

- Nerabezaroan eta gaztaroko lehen urteetan beste interes batzuk garatzen dira, eta irakurketa aisialdiko beste jarduera batzuekin lehian jartzen da.
- Hazkuntzak irakurtzeko nahi adina denbora hartzeko aukera mugatzen du, familiako erantzukizunak direla eta.
- Habia hutsaren etapan daude irakurketa ohitura handiena duten pertsonak, aisialdiari dagokionez aukera handiagoak dituztenez.
- Erretiroan eta laugarren adinean ateratzen dira irakurketa indize txikienak, ikusmeneko eta, oro har, osasuneko arazoak oztopo nagusi bihurtzen diren aldetik.

Horrela, bada, irakurle mota bakoitzarentzako ekintzak eta mezuak kasuan kasu egokitu daitezke (irakurtzeko maiztasuna eta bizi zikloa kontuan hartuta).

– Egitura sozioekonomikoaren maila

Pertsonen gaitasun ekonomikoak ez du berariaz garrantzirik irakurketa portaerak ikasketa mailaren arabera aztertzen direnean. Aitzitik, familia barruan kultura erreproduzitzeko dinamikek eta kualifikazioek eragin nabarmena dute. Era berean, eta aipatutako kasua oso berezia izan arren, lanbide motak kultura/irakurketa portaeran eragina izan dezakeela ikusi da. Beraz, klase soziala eta bizitza estiloa lotuko dituen ikuspegitik begiratuta lan egin behar da. Klase soziala dimentsio anitzeko konstruktua teorikoa da eta, diru-sarreraz gain, elkarri lotutako hainbat alderdi txertatzen ditu, hala nola kualifikazioak, lan mota (eskulana edo ez), lanbide eremua eta horren prestigioa, lan hierarkian duen posizioa eta ekoizpeneko bitartekoekin duen erlazioa; hori guztia familiaren jatorriarekin lotuta. Faktore horiek askotariko espazio sozialetan kokatzen dituzte pertsonak, eta aisialdian liburuak irakurtzea suspertu edo mugatu

dezakete espazio horiek, egin nahi den zerbait izatea, haien identitateetan eta ingurune sozial hurbilenetan baliotzat hartzea. Baldintzatzaile sozioekonomikoetan edo klase sozialean oinarritutako ikuspegiaren garrantzia bizitza estilo bat edo beste aukeratzean duten eraginarekin lotuta dago. Irakurtzeko hainbat aukera formal daude eta, ziur aski, oso zabaldua daude (alfabetatze osoa, liburutegien lurralde banaketa, liburu saltokiak...); aukera horietaz gain, puntu bereizgarria gai sinbolikoak dira (motibazio intrintsekoa), baina faktore sozial horien eraginpean, parte-hartze kulturalerako joera handiagoa edo txikiagoa izatera bultzatzen duten aldetik. Klase sozialak irakurketarekin lotura handiagoa edo txikiagoa duten bizitza estilo jakin batzuen garapenean izan dezakeen garrantziaz jabetzeak esan nahi du irakurketa sustatzeko helburu eta ekintzek desberdinak izan behar dutela hainbat testuinguru sozialetan. Estrategia berak ez du arrakasta bera izango edozein ingurune sozialetan, bertan bizi den biztanleria motak markatzen baititu inguruneak: klase sozialari, jatorriari, hiri garapenari, kultura aukerei eta abarri lotutako alderdiak.

Kanpoko beste arrazoi batzuk: hemen praktika sozialen eta horiek egiten dituzten (edo egiten ez dituzten) pertsonen ezaugarrien ikuspegitik begiratuta aztertu eta hausnartu bada ere, badira beste faktore garrantzitsu batzuk ere, eta horien artean honako hauek aipatu behar dira:

- Zenbateko eskaintza dagoen eta horren egitura.
- Liburuaren marketinean erabiltzen diren baliabideak eta eskaintza mota.
- Beste jarduera batzuk aisialdiarekiko lehian sartzea.

Eforkizunerako aukerak

Irakurketarekiko ohiturei buruz azaldutako xehetasun mailak helburuak abiapuntuetara egokitzeko balio du, hartara egingarriagoak izanik. Oro har, zentzuzko itxaropena zera da, segmentu batetik hurrengo segmentura igarotzea, baina hori garrantzitsua den interesik ez duen publikoaren eta publiko latenteen artean; ez, ordea, hainbeste irakurle ohikoak, sutsuak edo porrokatuak direnen artean.

Puntu honetan, interesgarria da egindako segmentazioa publikoen garapenaren ikuspegi estrategikoarekin gurutzatzea. Kulturaren Euskal Behatokiak berak 2015ean egindako → **“Publikoei buruzko azterlana. Teoriatik eta praktikatik egindako analisisa”** txostenean adierazitako ereduari jarraikiz, hiru estrategia orokor aipa daitezke identifikatutako segmentuetarako:

Interesik gabeko publikoa edo beste interes batzuk dituen publikoa (ohiturarik gabe)	Irakurtzen ez dutenak (0 liburu)	% 25,1	Dibertsifikazio estrategiak
	Ohiturarik ez duten irakurleak (1-2 liburu)	% 19,6	
Publiko interesatua (ohitura latenteak)	Noizbehinkako irakurleak (3-5 liburu)	% 21,2	Hedatzeko estrategiak
Egungo publikoa (ohitura aktiboak)	Ohiko irakurleak (6-8 liburu)	% 9,9	Sakontzeko estrategiak
	Irakurle sutsuak (9-12 liburu)	% 9,4	
	Irakurle porrokatuak (+12 liburu)	% 14,9	

Txosten honetan azaldutako datu eta hausnarketek estrategia are zehatzagoak pentsatzeko lagungarri izan behar dute, askotariko egoerak kontuan hartuta. Oro har, sakonki adierazi nahi izan gabe, baina lortutako emaitzekiko lotura adibidetzat hartuta, honako hauek azpimarratu behar dira:

- **Interesik ez duten publikoei** zuzendutako **dibertsifikazio estrategien** zailtasun nagusia oztopo psikologikoak izaten dira, pertsonen sinesmenei eta bizitza estiloari dagokienez. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da, erretiratzeko adinean eta laugarren adinean dauden publikoen kasuan bezala, litekeena dela interesaz

gain beste oztopo batzuk egotea, nahiz eta, oro har, interesa funtsezko faktoretzat hartzen den.

Oztopo psikologikoen kasuan, pertsonen interesak irakurketara bideratzea da kontua, kulturarekin, oro har, eta irakurketarekin, zehazki, duten harremanean aldaketa sakona sustatuz.

Ido horretan, eta agerikoa badirudi ere, beharrezkoa da gogoan izatea, etiketak gorabehera, oro har beste interes batzuk dituen publikoa izango dela, eta ez soilik “interesik gabea”.

Oztopo psikologiko hori garrantzitsua da, bereziki, irakurtzen ez dutenen kasuan: erdiek baino gehiagok diote irakurzaletasun

“txikia” edo “batere ez” dutela, eta % 80k diote “txikia”, “batere ez” edo soilik “zerbait” dutela. Irakurtzeko ohiturarik ez duten baina liburu 1 edo 2 irakurri dituztenen artean, azken multzo hori ia erdira murrizten da, eta % 46,9 dira. Irakurtzeko interesik ez duten pertsonak daude, eta interesa izan bai, baina irakurtzen ez dutenak edo gutxi irakurtzen dutenak ere bai. Kontuan izan behar da interesa baduten horiek errazago erakar daitezkeela, baina kasu horietan argiagoa da lehia egingo duten interesak izango direla. Literaturari dagokionez, formatuak, eskuratzeko bideak eta generoak kontuan hartuta, papera erakargarriagoa dela ikusten da, ingurune hurbilak eragin positiboa izan dezakeela (nahiz eta eskuratzeko modu nagusia erosketa izan) eta interes espezifikoak irakurle ez direnentzako sarbide izan daitezkeela (nahiz eta norberaren lehentasunen zehaztugabetasun maila handia egon).

– **Ohikotasunez irakurtzeko ohitura ez duten publiko**

interesatuak, nagusiki, zuzendutako **hedatzeko estrategien**

bitartez, kasu honetan, psikologikoak eta motibazio intrintsekoa ez diren faktoreekin lotutako gaiei egiten diete aurre. Irakurtzeko ohitura zehazteko elementu garrantzitsuak izaten jarraitzen duten arren, horien % 70ek ere diote irakurzaletasun nahiko handia edo handia dutela. Lehia egingo duten interesez gain, kasu honetan, garapena zabalago, hedatuago izan dadin lortzera bideratzen dira gomendioak, gai praktikoagoei erreparatuta: beste jarduera batzuekin bateragarri egitea, eskaintza lortzeko aukera, marketina, ingurune mesedegarria (ekimen sozialak, sektoreko eragileak, ekipamendu publikoak...).

– **Egungo publikoei** zuzendutako **sakontzeko estrategiak**

aurrekoekin zerikusirik ez duen egoera bati egiten diete aurre. Kasu honetan hainbat maila dituzten egungo publikoak bereiz badaitezke ere, helburua, batez ere, irakurketarekin duten esperientzia sendotzera, atxikitzen eta hobetzera bideratzen da, leialtasuna lortzeko helburuarekin. Gainera, irakurketaren aldeko inguruneak sortzen konplize izan daitekeen publikoa dira, bai maila formalean (ekimen antolatutakoak), bai informalean (lagunak, senideak...), rol aktiboa izanik.

8. AZKEN IRUZKINA

Txosten honetan, irakurketaren publikoen profila hurbiletik eta zehazki ezagutu nahi izan dugu, batez ere 2018an eginiko EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkestako datuetatik abiatuta.

Lehenik eta behin, aztergaia mugatu da, norberaren borondatez aisialdian liburuak irakurtzearen ikuspegiak duen interes espezifikoak justifikatuta. Horretaz gain, irakurketa mailaz gaindiko neurriak aintzat hartuko dituen ikuspegiaren aldeko apustua egin da, eta, hasteko, publikoak 6 irakurketa mailatan segmentatu dira (irakurtzen ez dutenak, ohiturarik ez dutenak, noizbehinkako irakurleak, ohiko irakurleak, irakurle sutsuak eta irakurle porrokatuak).

Bigarrenik, irakurketaren praktika testuinguruan kokatu da, datu historikoak nahiz nazioartekoak alderatuta. EAEren testuinguruan, irakurketa mailak Europako batezbestekoaren gainetik daude eta, gainera, bilakaera positiboa izaten ari da, geldoa baina aldekoa.

Azterlanaren bloke nagusian, azalpen faktoreen eragina aztertu da, eta interes berezia eman zaio eragina bera ikusteari ez ezik, eragin hori ulertzeari ere, kontuan hartutako aldagaien azpian dauden mekanismoen interpretazioa eskainiz. Sintesiaren atalean, azalpeneko alderdi guztiak laburtu dira, eta marketin kulturalera estrategien ikuspegi bat eskaini da.

Euskarazko irakurketa bereiz aztertu da; bilakaera historikoa motela baina positiboa izan du horrek ere, baina aintzat hartutako gainerako hizkuntzetan baino irakurketa indize txikiagoak ditu. Ildo horretan, adina (belaunaldi berriak) eta hezkuntza ingurunea dira aldaketaren bektore nagusiak, hizkuntza gaitasuna izanik baldintzatzaile nagusia.

Azkenik, irakurketaren testuinguruko emaitza espezifikoek gain, azterlana kultura sektore guztietarako garrantzitsua dela nabarmendu behar da. Lehenik, publiko kulturalen eta baldintzatzaile soziologiko indibidualen ikuspegi analitikoaren adibide delako. Bigarrenik, gogoeta askok oihartzuna izan dezaketelako eta estrategiak inspiratu ditzaketelako beste praktika kultural batzuei dagokienez. Oro har, publiko kulturalen gainerako hausnarketa sustatzeko aukera ematen du azterlanak, oro har.

